




LIBURUA

Gu, jende berria, jende zaharra



KANBODIAKO ENBAXADA ZADIE SMITH

ITZULPENA:

GARAZI UGALDE

IGELA, 2022

BESTIAK LIBURUTEGIA

Batek baino gehiagok askatu ezin duen ideia faltsua da Europa jende berdinez soilik dagoela eraikita. Eta ez bakarrik faxistek. Egiatan, gutako askok ere imajinatzen dugu, oharkabean bada ere, komunitate bat berdinek osatzen dugula. Baina Zadie Smithen, beste diasporako idazle askok bezalaxe, ondo daki leku guztiak eraikitzen direla jende berri eta zaharrari esker. Hetxotik, Smithen literatura guztia dago jende berri eta zaharrez beteta 25 urterekin White Teeth idatzi zuenetik hona, baita euskarara ekarritako Kanbodiako enbaxada hau ere. Jatorriz 2013an argitaratutako eleberri laburra Igelak ekarri zigun –2022an Garazi Ugaldek itzulita–,

eta haxe da Smith euskaraz irakurri dezakegun lehen aldia.

Fatou, protagonista, Londres ipar-mendebaldean bizi da, Willesden izeneko auzoan, eta etxeko lanetan dihardu Derawald familian. Batzuetan, igerilekura bidean, auzoan dagoen Kanbodiako enbaxadaren kanpoan gelditzen da, hormaren bestaldean badmintoneko luma-bola bat alde-rik alde bidaiatzen ikusteko. Beste batzuetan, Andrew-rekin elkartzen da kafetegi tunisiarrean, sarri historiaz eta erlijioaz hizketan amaitzeko. Liburua, denak dira willesdendarrak, eta denak dira berriak. Egunerokotasuna Willesdenen egiten dute: etxean bertan, igerilekuan, enbaxadaren aurrean eta kafetegian, baina bes-

te garai eta leku batzuetara egiten du istorioak, eta egiten du eztanda. Akkra-ko Carib Beach hotelaz kontatzen zaigu, edo Kanbodiako eta Ruandako genozidioez.

Willesdenen jaio arren, narratzailea ere jende berria da. Bertan jaio zela esanez, willesdendarren izenean egiten du hitz, nahiz eta onartu “horrek ez du[ela] ezer txo ere esan nahi”; nahiz eta argi utzi “ez gar[el]a herri bakarra eta inork ere ezin du[ela] gure izenean hitz egin”. “Berri” eta “zahar” ideiek egiten dute eztanda horrela eta leku bakarrak mila barnebiltzen ditu. Kanbodiako enbaxada-k, diaspora-literatura hainbatek bezala, erabat ezarrita dauzkagun ideiak hartu eta zera diosku: “Ez izan ergela”. ●